

FUNTSEZKOAK BERDINTASUNAREN ALDE LAN EGITEN DUGU. ZURE ESKUBIDEAK DEFENDATZEN DITUGU

BERDINTASUNEAN AURRERA EGITEKO ZERBITZU PUBLIKOAK, DOAKOAK, UNIBERTSALAK ETA KALITATEZKOAK DIREN ALDE

- 1 Zerbitzu publikoak** indartzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-oinarriak txertatuz. Beharrezkoa da Europako funtsak banatzea pandemiaren ondoriozko krisiari aurre egiteko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zeharka txertatuz alderdi guztietan, Berreskuratze, Eraldaketa eta Gainditze Planetik ondorioztatzen den bezala. Zerbitzu publikoak, inklusiboak, doakoak, unibertsalak, kalitatezkoak eta diskriminazio mota guztienaurkadihardutenak.
- 2 Berdintasunerako planak** ezartzea administrazio, erakunde eta entitate publiko guztietan, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko giza baliabide eta ekonomiko egokiekin. LPOEren (Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutua) seigarren xedapena maila guztietan betetzea eskatzen dugu.
- 3 Zerbitzu publikoetan generoaren araberako soldata-arrakala** betikitzen duten mekanismoak ezabatzeko neurriak ezartzea; izan ere, osasun eta mendekotasun-arloetan une honetan % 28ra iristen da, eta emakumeek nagusiki okupatzen dituzten funtsezko sektoreak baloratzea.
- 4 Administrazioaren, enpresen eta herritarren arteko erantzunkidetasun-politikak** garatzea, eremu publikotik familia, bizitza pertsonala eta lana bateragarri egiteko eragina duten aurrekontu eta programa sozialekin.
- 5 Indarkeria matxista** desagerraraztea prebentzio eta babes-zerbitzu publikoen bidez. Beraz, 016 zerbitzuak, “cometa”zerbitzua edo indarkeriaren biktimei laguntzeko zentroak administrazioek kudeatu beharko lituzkete.
- 6 Dependentzi Sektorean lan-baldintza duinak** bermatzea. Mendeko pertsonen arreta emateko zerbitzuen baliabide egokiak eta titulartasun Publikoa izatea.
- 7 Hezkidetzak, orientazioez-sexista eta berdintasun-planak** hezkuntza-egitura guztietan ezartzen direla bermatzea, prestakuntzan, zientzian, ikerketan eta kulturaren aukera-berdintasuna eraginkortasunez garatzea errazteko.
- 8 Pobreziaren eta bazterkeriaren feminizazioaren** aurrean babesteko ildoak bultzatzea; izan ere, biztanleria bereziki kaltebera pairatzen ari da emakume izateagatik diskriminazio ugari jasaten direnean, gaitasun desberdinekin, migratzailearekin, guraso bakarreko amarekin, sexu-orientazioarekin, langabeziarekin edo veste inguruabar batzuekin.
- 9 Berdintasunaren arloko legeria** garatzea, eman zireneko helburuak betetzeko aurrekontu eta giza baliabide egokiekin. Administrazio publikoen eremuan, beharrezkoa da gizarte-eragileok gure eginkizun sindikala negoziazio kolektiboan eta berdintasun-planetan garatzea, behar diren eragileekin. Halaber, lantokietan berdintasuneko eragile sindikalen sare bat garatzea, diskriminazio matxistako egoeren diagnosiak, ekintza positiboak eta ebazpenak egiteko.
- 10 Aurrekontuak ikuspegi feministatik egitea**, premiak kontuan hartzeko moduan, genero-eraginari buruzko txostenak funtsezko tresnak dira herritar guztien bizitzaren esparru guztietan erabateko integrazioa bermatu ahal izateko, bai gizonentzat, bai emakumeentzat.